

Kritika artean onartuko da bihar EAEko osasun erreformarako plana

Egitasmo honen akats eta gabeziak nabarmendu zituzten atzo HBk eta LABek

EAJ eta PSE-EE alderdien onespenez, bihar onartuko da Gasteizko Legebiltzarrean Osakidetzaaren Estrategi Plana. Egitasmo horren helburua, egungo osasun publikoaren egoera hobetzea da. Dena den, kritikak ere jaso ditu egitasmoak gizarteko zenbait sektoreren aldetik. HB eta LABek esaterako, «osasun publikoa pribatizatze bidea» dela adierazi zuten atzo.

L.K.G.I.E. / GASTEIZ-DONOSTIA


Tasio Erkizia eledun abertzaleak atzo Gasteizen emandako prentsurrekoan adierazi zuen HBk 'Azkuna planaren' kontrako jarrera izango duela bihar Eusko Legebiltzarrak egingo duen bilkuran. Erkiziaren esanetan, Osasuna Zaindaz planak «gizarteko txiroenak zigortu nahi ditu».

'Azkuna planari' «Abril Martorell plana» izena eman ondoren alderdi abertzalea osasun arloko «erreformarekin ados» dagoela esan zuen, «baina erreformarako irizpide nagusiak bestelakoak izanik».

HBk hiru kritika ditu 'Azkuna planaren' inguruan. Aurrena, Erkiziak konparazio batez aipatu zuenez, «terapia egin nahi du aurretik diagnostikorik egin gabe», hots, osasun arloko egungo jarduerari buruzko «analisi kritikorik ez» duela egin nahi izan.

Bestalde, «planak duen izpiritu merkantilista» ere kritikatu zuen eta joera horrek zerbitzu publikoen beraien existentzia zalantzan jartzen duela erantsi zuen, «merkatuaren legeen menpe kalitatea bera ere utzi nahi baita».

Azkenik, Erkiziak «abertsen eta txiroen osasun arloak» be-



Xabier Arberas, Rafa Diez eta Jon Barcena LABeko ordezkariak.

GILLENEA

reizteko asmoa leporatu zion Osasuna Zaindaz planari.

Beste alde batetik, HBk nahi duen osasun erreforma gauzatze hiru ardatz nagusi aipatu zituen, osasun arloko langileei motibazioa ematea, burokrazia errotik kentzea eta zerbitzu publikoei eustea, hain zuzen ere.

Jaurlaritzako Osasun Sailak landutako planak «sindikatu guztien eta medikuen elkarte askoren gaitzespenak» jaso dituela nabarmendu zuen. Hortaz, motibazioa ezinbestekoa dela esan zuen, «plana egin dutelako langileak aparte utzita».

LAB: Bozeramaile abertzale deialdi berezia egin zuen zerbitzu publikoei eusteko, «alabaina, zenbait elementu zuzentzaile sartuz». Erkiziak deklaratu zuen arlo publikoak eta eraginkortasunak ez dutela zertan elkarren aurka egon behar, «oso loturik baizik».

Oro har, HBk egindako kriti-

kekin bat etorri ziren atzo Donostian prentsurrekoa eman zuten LABeko ordezkariak. Dena dela, Jaurlaritzako Osasun Sailak egindako plangintzaren inguruan gizarte adostasunik ez dagoela azpimarratu zuten. «Zeresan garrantzitsua duen mugimendu sindikala egitasmoa bideratzeko prozesutik kanpo utzi du Jaurlaritzak», azaldu zuen Rafa Diez aipatu sindikatuko koordinatzaile nazionalak. «Honela, Gasteizko Gobernuak nabarmen utzi du berriro ere gizarte sentibilitaterik ez duela, are eta gutxiago gai honek gizarte osoan duen eragina kontuan hartzen bada».

Berak ordezkatzeko duen sindikatua ezezik, gainontzekoak ere Osasuna Zaindaz plangintzaren kontra daudela erantsi zuen segidan Diezek. «ELA eta CCOO publikoki erakutsi dute jadanik egitasmo honen aurkako jarrera, eta gurekin elkarlanean ari dira gai honen inguruan. UGTk ere ez du begi onez ikusten erreforma»,

argitu zuen.

Izan ere, LABeko ordezkarien esanetan Osakidetzaaren Estrategi Planak kalte handia lekarke gizartera, behartsuen eta aberatsen arteko aldea izugarri handituz. «Egitasmoak bere baitan gordetzen dituen zenbait kontzeptu oso arriskutsuak dira, osasun publikoko edozein sistematan ezinbestekoak diren berdintasuna eta doatasuna ezbaian jartzen baitituzte», esan zuen Jon Barcena LABeko osasun arloko koordinatzaileak.

Barcenak hitzartean izandako kontzeptuak bi dira finean: alde batetik oinarritzko zerbitzuak eta zerbitzu osagarriak bereiziko dira hemendik aurrera, eta osagarri deiturikoen kostua erabiltzaileak ordaindu beharko du. Bestetik, osasun publikoak emandako zerbitzuak erabiltzaileen eta Osakidetzaaren artean ordaindu beharko direla ezartzen du osasun erreformarako planak. Ordainkideza deitu zaio azken kontzeptu honi.

Osasun sistema publikoa aldatuko duen plana

JOXANJEL ALDAI / DONOSTIA

Iñaki Azkuna jeltzalea buru duen Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak Osasuna Zaindaz izeneko Osakidetzaaren estrategi planaren lehen berriak ezagutarazi zituenetik, aldeko zein kontrako makina bat iritzi kaleratu da. Izan ere, aldaketa handiak ekarriko ditu 'Azkuna plana' deitu denak EAEko osasun sistema publikora.

Osasun sistema publikoak aldaketak behar zituela eta, oinarrian osasun zerbitzu publikoen zein pribatuen arteko konpetitibitatea ezartzea izango duen plana egin zuten Osasun Saileko teknikariek. «Egitura aldaketak» bultzatu nahi dira eta horretarako osasun sistema publikoaren kudeaketan sumatuko dira batez ere berrikuntzak.

Zerbitzuen arteko bereizketa proposatu du Osasuna Zaindaz planak, eta «osagarriak» diren arteko batzuk —oraindik zehazteke daudenak— neurri batean gaixoak ordaintzea eskatuko du. Dena den, ordainkideza hori gogoeta modura, eta ez segituan ezartzeko neurri gisa, mahai-gaineratu dutela nabarmendu zuen Azkunak.

Jaurlaritzak martxoaren 30ean egin zuen bileran eman zion bere onspena planari, gero apirilaren 20an aurkeztu zioten Eusko Legebiltzarrari eta honek bihar eztabaidatuko du. EAJ eta PSE-EEk agertu dute dagoeneko aldeko iritzia, EA eta PP alderdiek ere oro har aldeko direla adierazi dute, baina plana zehaztu beharrekoa dela esan eta kritikatu ere egin dute. Herri Batasunak eta Unidad Alavesak guztiz kontrako iritzia dute.

Sindikatu gehienek, neurri batean edo bestean, planaren kontra egin dute gogor. Medikuen sindikatu eta elkargoek, berriz, planak aurrera egin dezan oztoporik ez dutela jarriko jakinarazi dute.

HILDAKOAK

ARABA

- GASTEIZ Vidal Perez de Onrraita Ortiz, 20 urte. Claudio Alonso Zamarrillo, 60 urte.
- ZUIA Jose Luis Rodriguez Saenz de Lafuente, 40 urte.

BIZKAIA

- BILBO Concepcion España Angiano, 69 urte. Juan Manuel Blanco Hernandez, 88 urte. Rafaela Monge Garran, 86 urte. Jose Luis Corral Sainz, 53 urte.
- ALGORTA Aurora Zalduondo Uruburu, 90 urte.
- BARAKALDO Jose Luis Corral Sainz, 53 urte.
- ERMUA Rafael Urreta Suinaga, 83 urte. Antonio Sanchez Santos, 78 urte.
- MARKINA Hodei Arrieta Martinez, 10 urte.
- PORTUGALETE Gloria Heredia Jimenez. Angela Garcia Urkulu, 78 urte.
- SANTURTZI Maria Angeles Egia Catalina, 65 urte.
- SESTAO Marcelino Zaballa Gutierrez, 83 urte.
- SOPELA Lucia Martinez Alcubilla, 84 urte.

GIPUZKOA

- DONOSTIA Margarita Saez de Arregi Angulo, 97 urte. Trinidad Toledo Trifol, 86 urte. Alicia Vallejo Oses, 83 urte. Manuela Vitoria Gurrutxaga. Antonio Llopis Oltra, 75 urte. Francisco de Asis Alonso Areizaga.
- ARRASATE Santiago Narbaiza Larrañaga, 66 urte.
- ELGOIBAR Rafael Cobos Nuñez, 60 urte.
- HONDARRIBIA Maria Victoria Sanchez Lopez, 40 urte.
- IRUN Emilio Morales Carrasco, 75 urte.
- LARRAUL Jose Angel Zumeta Mimendia, 72 urte.
- LEGAZPI Teodora Mutiloa Berasategi, 86 urte.
- ORIO Romana Leunda Azkue, 88 urte.
- ZUMARRAGA Cipriano Boillos Minguez, 61 urte.

LAPURDI

- BAIONA Josephine Garcia. Roger Guilhon, 72 urte.
- ANGELU Ida Cany Martiren, 60 urte. Jean Marie Langlere, 81 urte.
- BIDARTE Magdeleine Valencia, 82 urte.
- DONIBANE LOHIZUNE Anita Etxarte, 60 urte.

- MIARRITZE Balbino Pedrouzo, 67 urte.

- ZIBURU Joseph Garat, 72 urte. Medeleine Dequick Hastoy, 77 urte.

NAFARROA

- IRUÑEA Jose Luis Pascualena Goiena, 51 urte. Yolanda Garcia Sagasti, 43 urte. Nicasia Nuñez Lanas. Maria Concepcion Beunza Larunbe, 66 urte. Francisco Salinas Vicente, 82 urte.
- BAKAIKU Francisca Fernandez Baztarrika, 87 urte.
- LARRAGA Adela Fernandez Munariz, 66 urte.
- LERIN Resurreccion Resano Ontoria, 83 urte.
- PITILLAS Joaquin Napal Adot, 88 urte.
- SAN ADRIAN Ignacio Muro Lapedriz, 34 urte.
- URRITZA Valeriana Olaetxea Zubeldia, 77 urte.
- ZARRAKAZTELU Jose Arpon Miranda, 65 urte.

NAFARROA BEHEREA

- GARAZI Prosper Denard, 81 urte.
- IRRISARI Pierre Errotabehere.

ESKELAK

ESKELAK HARTZEN DIRA:

ARRATSALDEKO

4ak ARTE: (943) 46 90 22

4etatik 7etara: (943) 37 15 45